

Draconia rol kluba

Hamar urte baino gehiago daramate jolasten, baina herriak ez ditu ia ezagutzen. Bost urtetik hona, Unamuno etxean biltzen dira Draconiako kideak, rol jokoak praktikan ipintzeko eta gazteei aisialdirako aukera berria emanez.



- Zein urtetan sortu zen taldea?

Ofizialki 2003. urtean sortu zen. Urte horretan estatutuak onartu genituen, baina 1996 edo 1997. urtean biltzen hasi ginen, Gure Etxean.

- Zenbat kide zarete?

Taldean 12 bazkide gara: kuota ordaintzen dugu, taldearekin lotura daukagu, erabakiak hartzen ditugu... Baina edonor etor daiteke jolastera eta normalean 16 lagun inguru biltzen gara.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Berez, aisialdirako aukera berria eman nahi diegu gazteei, batez ere. Baina egia esanda, jolasten ondo

pasatzen duen lagun koadrila gara. Horregaitik astean zehar ere elkarrekin geratzen gara eta asteburu batzuetan irteerak egiten ditugu.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Asteburu eta jai egun guztietan biltzen gara, 16:30etik aurrera, Unamuno Auzo Etxean. Lokala beste talde batzuekin konpartitzen dugu eta sartzeko, zentruaren tabernako ordutegien menpe gaude, baina momentuz ez daukagu besterik.

- Urtean zein ekitaldi egiten dituzue?

Santixauetan, rol partidak eta Bloodbowl txapelketa antolatzen dugu eta Madril, Asturias eta

Galiziako jendea etortzen da jolastera. Joko horretan, edozeinek parte har dezake, arauak ezagutuz gero. Gainera, hurbiltzen diren umeei ere jolasten erakusten diegu, apurka apurka ikasteko. Horretaz gain, asteburuero ligak antolatzen ditugu, estrategia jokoekin, mahai jokoekin...

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Nahi duena, Unamunora etor daiteke, eta gainera www.draconiakclub.com/foro helbidetan gaude. Zenbat eta jende gehiago elkartu, hobeto, bakarrik jolastea ezinezkoa delako.

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna